


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

GETARIA 21



Egile eta data ezezagunak
(Artxiboan ez dago eraikuntza proiekturik)

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina, behe oina, lau goi oin eta 1925eko bi jasodura dituena (mantsardan eraikiak). Harlanduzko fatxada, ezkerretara baon aluminiozko begiratokia duena. Behe oineko bigarren baon, ezkerretik, lausotzen duten elementu gainjarriak.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baon konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.

A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodura mantsardatuak (5. eta 6. goi oinak); begiratokia.

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.

* Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritakoari jarraituz.

* Erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak, fatxadaren eta behe oineko baon konfigurazio unitarioarekin loturikoak barne.